

## Ikastetxetarako prestakuntza-programa

Euskadiko ikastetxetako eta institututako (DBH 3, 4 eta Batxillergoa), Lanbide Heziketako zentrotako (ahal izanez gero, Oinarrizko eta Erdi Mailako 1. maila) eta irakaskuntza ez-arautuen zentrotako neraberi eta gazteri zuzendutako proiektua da, Emakunderen Gizonduz Zerbitzuaren barrukoa. Honek emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko kontzientziazioa, parte-hartzea eta inplikazioa du helburu nagusi. Proiektu hau ondoko bi tresna hauek erabiliz garatzea proposatzen dugu: alde batetik, komiki interaktibo bat, aurreko bideo-jokoaren ordeztuz; eta bestetik, mahai-joko bat, *Kapelaz liluratu* izenekoa. Jarraian, zeri buruzkoak diren azalduko dugu laburki.

## GAZTEAK BERDINTASUNEAN komiki interaktiboa

### Helburuak

- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko ikaslegoaren kontzientziazioa eta inplikazioa sustatzea, eta sexu-aniztasunarekiko errespetua.
- Indarkeria matxisten modu guztien aurka sentsibilizatzea.
- Gatazken konponbide ez-bortitzaileko eta tratu onetarako jokabide-aldaketak erraztea.
- Gizarteratze sexistaren eredu berezietatik eta haien ondorioz konturatzea eta balio berdinezaleak bultzatzea.
- Zaintzen etika eta erantzunkidetasuna sustatzea.
- Maskulinitatearen aginduen kostuak eta arrisku-jokabideekiko zerikusia aztertzea.
- Mutilen jarrera berdinezaleagoetarako konpromisoa eta nesken ahalduntzea bultzatzea.

### Metodologia

Ekimen hau honela garatuko da:

- Sei binetek osatutako **komiki interaktibo bat**. Bineta bakoitzean pertsonaien bizipen desberdinak agertzen dira. Haien jarrerek eta jokabideek sexismoari, homofobiari, indarkeriari, tratu onei eta arrisku-jokabideei buruzko hausnartzea badute helburu. Ikasleek

eszena dispositibo batean (ordenagailuan, Chromebookean, tabletan, mugikorrean) ikusiko dute eta, horren bitartez, egoera horiei buruzko galderak erantzungo dituzte.

- **Sei unitate didaktikoak.** Eszena ikusi eta proposatutako galderak erantzun ondoren, taldeka eta era parte-hartzailean egoera bakoitzari dagozkion edukiak landuko dira. Unitate bakoitzaren iraupena ordu batekoa da gutxi gorabehera. Gutxienez, talde bakoitzean bi orduko bi saio proposatzen ditugu eskuarki (ahal izanez gero, egun desberdinetan), sei binetetatik 4 lantzeko.

## Edukiak

- Maskulinitatea eta arrisku-jokabideak (1. unitatea)
- Homofobia (2. unitatea)
- Emakumeen aurkako indarkeria matxista (3. eta 4. unitateak)
- Erantzunkidetasuna eta zaintzak (5. unitatea)
- Tratu onak (6. unitatea)

## *KAPELAZ LILURATU mahai-jokoa*

Komiki interaktiboarekin batera, beste material hau ere eskaintzen dugu, mahai-joko bat, jolas-tresna hezkidetzaille bezala sortua, emakumeen eta gizonen berdintasuna errazteko eta, bereziki, maskulinitate berdinzaleak sustatzeko, hezkuntza emozionala eta trebetasun sozialak eskuratzearen estrategien bitartez.

## Helburuak

- Norberaren emozioak hobeto ezagutzea.
- Gainerako pertsonen emozioak identifikatzea.
- Inguruan ditugun errespetuan eta zainketan sakontzea.
- Norberaren emozioak egoki adierazi eta kudeatzeko trebetasuna garatzea.
- Emozio negatiboen ondorio kaltegarriak prebenitzea.
- Emozio positiboak sortzeko trebetasuna garatzea.
- Gaitasun emozional handiagoa garatzea.
- Nork bere burua motibatuzko eta bizitzaren aurreko jarrera positiboa hartzeko trebetasuna garatzea.
- Emakumeen ahalduntzea eta maskulinitate berdinzaleen eredu berriak sustatzea.

## Metodologia

Jolasean oinarritutako metodologia estrategia jakin batzuez baliatzen da ikastea bermatzeko; estrategia horiek diseinatuta daude giro harmoniatsua, entretenigarria eta jostagarria sortzeko, eta horrek sozializazioa, talde-kohesioa eta harremanak hobetzen laguntzeaz gain, motibazioa eta hazkunde pertsonala ere laguntzen ditu, beraz gaitasun emozionalen garapen modura ulertuta. Honela, edukiak bizipen-moduan lantzen dira.

Jokoak bere dinamika azaltzen den gida didaktikoa dakar. Partaideak jokora ohitu ondoren, saioaren iraupen aurreikusia ordu batekoa da, bikoteak sortu direnetik azken baloraziora arte.

## Edukiak

- Trebetasun sozialak eskuratzea
- Hezkuntza emozionala
- Genero-estereotipoak auzitan jartzea
- Pertsonen arteko harremanak
- berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea
- Maskulinitate-eredu tradizional hegemonikoa gainditzea

## Irakaslegoari zuzendutako prestakuntza

Garrantzitsua da jarduera hauek ikastetxeak hezkidetzarekin eta berdintasunarekin lotuta garatzen dituen helburu eta jardueren barruan kokatuta egotea. Horregatik, eskatzen dugu irakasleek proposamen hauek ezagutu eta babes ditzatela, eta saioetan parte har dezatela, haren ebaluazioa eta jarraipena errazteko, eragina neurtzeko xedeaz.

Horregatik, irakaslegoari ere 2 eta 4 ordu arteko prestakuntza-saioak eskaintzen dizkiogu gutxienez, bai komikia bai mahai-jokoa eta laguntzen dieten dinamikak hobeto ezagutzeko eta haien ikasleekin nahi edo behar dutenean erabiltzen ikasteko.

Bukatzeko, proposamen hau aldatetarako eta hobekuntzarako irekita dago; honetarako ikaslegoaren eta irakaslegoaren inplikazioa ezinbestekoa da. Ekintza hau eta haren helburuak ikaslegoak ere ezagutu behar ditu aurretik, parte hartzea errazteko. Ikastetxearen eta

saioak errazten dituzten pertsonen artean *feedback*a jasotzea nahi dugu, proposamena hobetzeko eta helburuak lortzeko asmoz.

Informazio gehiago behar baduzue edo zuen zentroak programatu nahi badu, bidal ezazue posta elektroniko bat helbide honetara:

[emakunde.gizonduz@euskadi.eus](mailto:emakunde.gizonduz@euskadi.eus)

